

**56. OSOKO BILKURAKO AKTA**

Zumaiako herrian, 2012ko uztailaren 23an, arratsaldeko zazpitan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ez ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Azis Alberdi Zaldunbide jn.  
Arritokieta Gonzalez Elosua and.  
Eneko Agirre Maiora jn.  
Maitane Agirre Arrieta and.  
Iñaki Ostolaza Esnal jn.  
Montse Arana Perez and.  
Edurne Egaña Manterola and.  
Ana Arranz Irigoyen and.  
Isidro Fernandez Echave jn.  
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.  
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.  
Aitor Leiza Alberdi jn

**Ez bertaratutako zinegotziak:**

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

## EGUNEKO AZTERGAIAK

### 1.- BIRZIKLAPENA BAI, ATEZ ATEKORIK EZ.

#### "Birziklapena bai, Atez atekorik ez" HERRITAR PLATAFORMAREN ALDEKO MOZIOA

Joan den ekainaren 13an "**Birziklapena bai, Atez atekorik ez**" herritar plataformaren ordezkariak Iñaki Agirrezabalaga alkatearekin izandako bilera plataformaren helburuak eta sinadura kanpainaren emaitzen berri eman zioten.

Bilera egin zenetik laster hilabetea izango da eta Plataformak Udal Gobernuaren aldetik ez du inongo erantzunik jaso.

Erantzun ezaren aurrean Zumaiko EAJ eta PSEk Udal Osoko Bilkurari herritarren plataformari erantzuna ematea eskatzen dute, 4.000 sinadurei sor zaien begiruneagatik:

1. Zintzilikarioen bidezko **atez ateko zabor bilketa sistema** (Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuola ereduak) ezartzeko **prozesua bertan behera utz dezala**.
2. Edukiontzien bidezko gaikako zabor bilketa sistema susta dezala, hondakin organikoen bilketarako edukiontzi gehiago jarritz Zumaiko kaleetan eta Zumaiko famili guztiei edukiontzi horien erabilera bermatuz.

Zumaian, 2012ko uztailaren 5a

EAJ-PNV

PSE

2012ko uztailaren 5ean udal-erregistro orokorrean sarrera izan zuen EAJ-PNV eta PSE-PSOE aurkeztutako idatzia. Sarrera zenbakia 1422.

Alkateak, Montse Aranari (EAJ-PNV) eman dio hitza aurkeztutako proposamena azaltzeko.

Montse Aranak (EAJ-PNV) gaiaren aurkezpena egin aurretik, Alkateak deialdiaren inguruan izan duen jarrera oztopotzailea salatu du. Ondoren, Plataformak Alkatearekin bilera eskatu zuela bi punturen ingururuan hitz egiteko eta oraindik, erantzunaren zain daudela. Gainera, otsailaren 22an prentsaren bidez, jakin zutela Bilduk gobernatzen dituen 34 udalerrietan atez-ateko sistema ezartzera zihoala; besteak beste, Zumaiko udalerrian. Bestalde, martxoaren 5eko Ingurumen-batzordean, batzordeburuak, Aitor Leizak, adierazi zuen udaletxeak onartuko duela

atez-ateko sistema ezartzea; prozesu bat zabalduko dela hainbat gai zehazteko.

Adierazi du jarraian, oposizioak, bere aldetik, sistema ezartzeko planik ote duten galdetu diola gobernari (aurrekontua, eragina etxeetan, kaleetan, ingurunean, isunak, ardurak eta abar). Udal-teknikariek agindurik ez dutela sistema ezartzeko ere aipatu du.

Gogoratu du martxoaren hogeita biko plenoaren batzarraldian, Bilduk mozioa aurkeztu zuela non udalak hondakinak murriztu beharra eta egun Zumaiak duen %35eko birziklapen mailatik haratago joan behar dela aldarrikatzen duen; mozioak adierazten zuen atez ateko sistemarekin hiri hondakinen %80 birziklatzen dela eta Zumaiako Udalak birziklatze maila hori lortzeko neurriak abiarazi behar dituela. Mozioa Bildu eta Aralarren botoekin onartu zela esan du.

Bestetik, martxotik hona oso informazio gutxi jaso dutela; eta informazio eskatu dutenean Aitor Leizak, Batzordeburuak, eredu desberdinak aztertzen ari dela eta plana gauzatzeko egutegirik ez duela emango erantzun diela.

Ekainan plataformak bi puntutan oinarritutako eskaera egiten duela aipatu du: atez ateko sistema bertan behera uztea eta gaikako hondakin-bilketa eta birziklapena sustatzea edukiontzien bitartez, hondakin organikoak biltzeko edukiontziak gehitu.

Udal-gobernuak bere programa gauzatzeko legitimatuta dagoela aldarrikatu du, baina eurek programan ez dutela arrastorik topatu atez ateko sistema ezarriko denik; programak, batetik, %80a birziklatzen duten bilketa sistemak hobetsi, berezitako zakar ontziak modu egokian erabiltzeko kanpainak egin, udal elkarteak hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena bultzatzeko aipatzen duela, eta, bestetik, herritarren partaidetza eta erabakimena zabaltzeko, herritarren eskutik joatea delako gobernatzeko modurik praktikoena, demokrazia bizia, eraikitze eta herritarrak boteretzeko herri mugimendua indartzea jasotzen duela. Aralarren programan askoz gutxiago topatu dutela ("udala parte hartzera bultzatzen duena, gardena eta herritarren zerbitzura").

Euren ustetan, inposaketa ez dela bidea esan du eta behar-beharrezkotzat jo du jendea hezitzea, kontzientziaztea. Gainera, Mankomunidadeko memoria aipatu du gai guztietan bilketak gora egin duela esateko (paperak, kartoia 2011. urtean gora egin du 3,73; ontzi arinak gora egin du 3,36; beira gora egin du 2,85; arropa gora egin du 0,33; pilak gora egin du %36a; olio-begetala 39,78 gehiago, materia organikoa hemen ikusten da Zumaiaren zenbat famili duten 804, %51,51 gehiago egin zuen lehengo urtean) eta kanpainak antolatzen badira are gorago egingo duela esateko.

Jarraian adierazi du, jendearen jarrera eta erantzuna azpimarratzeko, aurten bi hilabetetan plataformak, udalak dirurik gastatu gabe, mila poto edo giltza banatzea lortu duela.

Bukatzeko esan du euren ustez, lau mila herritarrek bere desadostauna azaldu dutela, inplikazio maila izugarria erakutsiz, eta horregatik, EAJ-PNVek lau mila arrazoi dituela plataformak eskatzen dituen bi puntuak babesteko: Zintzillikarioen bidezko atez-ate zabor bilketa sistema ezartzeko prozesua bertan behera utz dezala, gobernua, eta edukiontzien bidezko gaikako zabor bilketa sistema sustatu dezala.

Emiliano Cabañasek (PSE-PSOE) gauza pare bat zehaztu nahi dituela esan du jendeak gaia hobetu uler dezan. Batetik, %80a ez dela inoiz definitzen eta definizio beharra duela esan du. Izan ere, %80az hitz egiten denean ez da hondakin organikoari buruz bakarrik hitz egiten, eta gogoratu du atez ateko sistema hondakin organikoen bilketara bideratuta dagoela. Ondorioztatu du, ba, %80az hitz egitea eta zuzenean atez atekoa aipatzea ez dela adierazpen erreala; atez atekoak zati txiki bat suposatzen duelako hondakinen %80ko multzoan.

Gaineratu du, ez dela egia 34 udalek Foru Aldundiari eskatu diotela atez atekoa sistema ezartzeko; goitik behera 34 udalei bidali zitzaien eskutitz berbera, non atez atekoa ezarriko zela agintzen zitzaien, besterik ez dela esan du. Horrek agerian jartzen duela gai hau ez zegoela Udalen agendan, Bilduren zuzendaritzan baizik; erabaki politikoa dagoela egun Foru Aldundiak onartu duen eta indarrean dagoen hondakin organikoen tratamenduari kontra egiteko. Bukatzeko esan du, herriak erabakitze eskubidea duela eta Zumaiako herritarren plataformak adierazi du atez ateko sistemaren kontra dagoela eta, horregatik, udal gobernua lau mila herritarren hitzaren aurrean ze jarrera duen erakutsi behar duela.

Aitor Leizak (ARALAR) baieztatu du Batzordean esan zuela urteko egutegia ez zuela emango, baina, arrazoitu du, esanez egutegirik ez dagoela eta ez dagoen zerbait inolaz ere eman litekeela. Beraz, EAJ-PNVek egindako aipamena testuingurutik kanpo dagoen zerbait dela. Ondoren, oso datu politikak atera dituztela arpegiratu die, gehiketa, birziklapen gehiketa aipatu dutenean, baina ez dutela argitu zenbat birziklatzen den, eta egun, oraindik, %35 besterik ez da birziklatzen. Orain lortu dela EAJ-PNV gobernua zegoenean ez zena lortu, hau da, hainbeste poto banatzea. Parte hartze prozesua ez dela egon, jendeak ez duelako parte hartu, eta ez aukera ez zaiolako eman. PSE-PSOEri esan dio atez atekoa jarri den herrietan ezarri baldin bada, PSE-PSOEek eman duen babesagatik izan dela.

Alkateak (BILDU) adierazi du eurek mozio alternatibo bat aurkezteko asmoa zutela gauzak aberastu asmoz, baina ezin izan dutela eztabaidatu EAJ-PNVek eta PSE-PSOEek beto eskubidea aktibatu dutelako, eta , beraz, inposizio baten aurrean daudela esan du.

Jarraian BILDUren arrazoibidearen ildo nagusiak azaldu ditu:

Zumaia, urteak daramatzala eduki ontzien sistemarekin hondakinen gaikako bilketa igo asmoz, baina urratsak egin baldin badira ere zabor nahasia jaten duen eduki ontzi berdeak gainezka egon ohi dela oraindik ere.

Nahasita botatako zabor hori, Urtetako zabortegian pilatzen ari dela orain arte; etorkizunean arazoaren erantzukizuna gure gain hartu eta hondakinak jatorrian berezi ezinean birziklagarriak diren gaiak erraustu beharko direla, balio handia duten lehengaiak Zubieta eta Gipuzkoa osoko herritarrak kaltetuko dituen ke kutsatzaile bihurtuz.

Zumaiarrok ondo egiten dakitela erakutsiko dutela. Zaborrik eta ke kutsakorri gabeko Gipuzkoa hobeago batera pausoak emango dituztela, murrizketari, berrerabiltzeari eta birziklatzeari bide emanaz; hori horrela, udalbatzak ondorengo onartzen duela:

1.- Gipuzkoako Aldundiak hondakinak kudeatzeko aurkeztu berri duen dokumentuarekin bat egiten duela; honekin lotuta 2014rako bermatzen duen Gipuzkoako zabortegiaren itxiera txalotzen dutela.

2.- Argi daukatela Gipuzkoan ez dutela errauskailurik nahi eta behar, horrekin lotuta Zumaiarrek ez dutela behar ez den azpiegitura erraldoi hori ordaintzeko asmorik.

3.- Zubietako eta Gipuzkoako herritar guztion osasuna bermatu asmoz, herri guztiek dutela bilketa selektiboaren emaitzak ahalik eta gehien igotzeko ardurara, Zumaiarrek ez baitute nahi Zubietarrentzat Zumaiarrentzat nahi ez duten ezer. Ez daudela prest, erosotasunaren izenean Zumaiarrek duten ardurarekin eta besteari eurek nahi ez duten kea bidaltzeko.

4.- Guzti hau lortzeko Zumaiarrok ondo egitera goaz, 2013an %80ko emaitzak lortuko dituen bilketa selektiboa ezarriko da.

5.- Hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea dela arazoari irtenbidea emateko bidea.

Beraz, eta euren mozioan adierazten den bezala, euren irizpide politikoa garbia dela, birziklatzeak ezin duela eskubide bat izan. Birziklatzeak bete behar bat izan behar duela, ahalik eta gehien jaso eta birziklatzeko.

Oraingoz hori demostratu duen jasotze sistema bakarra atez-atekoa dela. Horren ezarpena arlo teknikoari dagokiola herri bakoitzeko berezitasunetara moldatuz. PNV eta PSOE-ren mozioaren bitartez atekak pare-pare itxi nahi dizkiola horri eta ez zaiela bidezkoa iruditzen. Hori bakarrik ez; kontradiktorioa ere iruditzen zaiela. Izan ere, PIGRUG-en,

alderdi sozialistak eta EAJ-ak onartu zuten hartan, adierazten zela, 11. puntuan hain zuzen ere, aukera emango zitzaizela edozein jasotze sistemari. 11. puntua irakurri du ondoren

Alkateak plataformako ordezkariari ere hitza eman dio.

Ondoren, Alkateak, Montse Aranak, Emiliano Cabañasek eta Aitor Leizak eztabaidan jarraitu dute batzarraldiaren grabaketan jasotakoa adieraziz.

### **ERABAKI ZATIA**

Aldekoak: **6 boto** (5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Kontrakoak: **7 boto** (6 BILDU, 1 ARALAR)

Abstentzioak: **0 boto**

**ERABAKIA:** “Birziklapena bai, atez atekorik ez” proposamena ez da onartu.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak batzarraldia amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak eta hogeitabost minutu direnean, eta nik neuk idazkariak fede ematen dut.

Zumaiako Udaleko Idazkaria  
Gorka Urgoiti Agirre